

01.

Munduko emakumeen desparekotasun-egoera



Emakumeak desparekotasun-egoeran bizi dira munduko leku guztietan, nahiz eta desparekotasun hori handiagoa izan batzuetan bestezuetan baino. Gizarte guztiek komun dituzte **GENERO-ROLAK** esaten zaiena; honako definizio hau eman dezakegu haiei buruz: “Gizartean sexu jakin bat duten pertsonentzat egokitzat jotako jokaera eta jardueri dagozkien betebeharrak, debeku eta itxaropenen multzoa”.



Rolen egokitze tradizionalak emakumei esparru pribatua ematen die, eta gizonei esparru publikoa. Emakumei zeregin nagusia, ia eskusiboa, ematen die etxea zaindu eta mantentzeari dagokionez, bai eta hartan bizi diren pertsonen premiak asetzeko egin behar diren lanak

egiteari dagokionez ere. Bestalde, gizonei zeregin nagusia ematen die esparru publikoan; zehazki, lan-esparruan nahiz politika-arloko erabakiak hartu eta esparru publikoaren eraikuntzan.



Emakumeak
Indian
Garapenaren eragile



ALBOAN